

**NAFARROAKO UNIBERTSITATE PUBLIKOKO IKERTZAILEAK**  
**PRESTATZEKO LAGUNTZA-PROGRAMA, 2010. URTEKOA**

*Azaroaren 11ko 1659/2009 Ebazpenaren eranskina*

*Nafarroako Unibertsitate Publikoan ikerketa bultzatu eta sustatzeko politikaren barruan, Ikerketa Batzordeari beharrezkoa ikusten du ikertzaile gazteen prestakuntza sustatzea lehentasunezko ekintza gisa. Ikertzaileak prestatzeko laguntzen urteroko deialdia da, zalantzarik gabe, orain arte erabilitako tresna eraginkorrena, zeina 1999an abiarazi baitzen. Deialdi horretako modalitateek bi helbururi erantzuten diete: batetik, doktoretza aurreko eremuan ikertzen hastea bultzatzea, eta bestetik doktoretza titulua eskuratu berri duten ikertzaileen ikertzeko gaitasuna bultzatzea. Gainera, deialdiak bateragarria izan behar du prestakuntzan dabilzan ikertzaileen lanaren baldintzak duintzearekin, bai alderdi ekonomikotik, baita gizarte-onuren alderditik ere, goragoko gaurko lege esparruak ezartzen duena alde batera utzi gabe. Horregatik, Ikerketa Batzordeak ondoko ikertzaileen prestakuntzarako laguntzen deialdia onetsia izan dadin proposatu du.*

*Urtarrilaren 27ko 63/2006 Errege Dekretuak, prestakuntzan dauden ikertzaileen Estatutua onesten duenak (2006ko otsailaren 3ko BOE, 29. zk.) eta urriaren 24ko 1326/2003 Errege Dekretua indargabetzen duenak, indarra hartuko duela aipatzea bereziki interesgarria da. Arau berriak nahitaezko sistema bat osatzen du ikertzaileak prestatzea helburu duten laguntza-programa guztientzat, eta kontuan hartu behar den premisa da hori ezinezkoa dela doktore titulua erdietsi gabe. Aplikazio-eremu material honen bidez, Errege Dekretuak, alde batetik, prestakuntzan dauden ikertzaileen eskubide eta betebeharrak arautzen ditu, eta, beste aldetik, atxikipen-zentroekiko harremanak.*

**I.- Deialdiaren xedea eta modalitateak.**

**1.-** Deialdi honetan diren xedapen komun eta espezifikoek arautuko dute Nafarroako Unibertsitate Publikoaren 2010 urterako ikertzaileen prestakuntzarako deialdi orokorra. Deialdian ondoko laguntzak sartzen dira:

- doktoretza aurreko ikertzaileak prestatzeko 13 laguntza, lehen eskaerakoak, Nafarroako Unibertsitate Publikoan doktoretza tesia egin nahi duten unibertsitateko goi-tituludunentzat (III. kapitulua).
- Berriztatzeko 37 laguntza ikertzaileak prestatzeko unibertsitateko goi-mailako tituludunentzat, betiere, 2009. urtean zehar Nafarroako Unibertsitate Publikoaren doktoretza aurreko laguntza bat eduki badute, laguntza lau urte osoz eduki ez badute eta doktoretza tesia egiten jarraitzen badute Nafarroako Unibertsitate Publikoan (IV. kapitulua)
- Doktoretza titulua 2006ko urtarrilaren 1etik aurrera lortu duten ikertzaileentzako 4 laguntza, doktoretza ondoko ikertzaileak prestatzekoak (V. kapitulua).
- Nafarroako Unibertsitate Publikoko deialdi honetako doktoretza aurreko ikertzaileek egonaldiak egiteko laguntzak (VI. Kapitulua).

## II.- Xedapen komunak.

### Eskaeren tramitazioa eta ebazpena.

2.1.- Eskaerak Nafarroako Unibertsitate Publikoko Erregistro Orokorrean aurkeztu beharko dira, astelehenetik ostiralera, 8:30etik 14:30era, edo , 4/1999 Legeak aldatu zuen Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legeak aurreikusitako edozein prozeduraren bidez. Eskabideak aurkezteko epea 10 astegunekoa da, Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunaren biharamunetik kontatzen hasita. Berritzeko eskaerei dagokienez, epe hori bera kontatuko da laguntzen deialdia Unibertsitatearen web-orrialdean argitaratzen den egunaren biharamunetik.

Oro har, laguntza-modalitate bakoitzean eskatzen diren bete beharreko baldintzak eskaerak aurkezteko epea bukatzen den egunean bete behar dira, doktoretzaren ondorengo laguntzen kasuan izan ezik, zeinetan doktorea izatearen eskakizuna 2009ko abenduaren 31n bete behar baita. Aparteko moduan, doktoretza aurreko laguntzen kasuan, eta Doktoretza Programen egiaztapen eta dagozkien onarpenetan gertatzen ari diren atzerapenak kontuan hartuta, doktoretza ikasketetan matrikula egina izatearen eskakizunetik salbuetsi ahalko da. Nolanahi ere, Nafarroako Unibertsitate Publikoko sail batek doktoregaia onartu behar du eta tesi zuzendari bat esleitu behar dio.

2.2.- Laguntzen zuzentzaile guztiak doktoreak izango dira, Nafarroako Unibertsitate Publikoari lan kontratuaren bidez edo funtzionarialki lotuak izango dira, eta 2009ko erroldako Ikerketa Talde batean egongo dira. Laguntzaren onuraduna zuzentzailearen Ikerketa Talde berari atxikiko zaio.

2.3.- Eskaerak aurkezteko epea bukatzen denean, gehienez ere hilabeteko epean, Unibertsitateko Errektoretzako iragarki oholean eta hedabide elektronikoetan jarriko da eskaturiko laguntza modalitaterako ezarri eskakizunen bat ziurtatu ez duten edo eskaturiko agiriak aurkeztu ez dituzten eskatzaileen zerrenda. Bitarteko horiek dira unibertsitateak onaturiko tresna bakarra, alde batera utzi gabe interesdunei posta elektronikoaren bidez eginiko jakinarazpenaren erabilera, izaera osagarri eta ez ofizialarekin. Eskaeragile horiei 5 egun naturaleko epea emango zaie, zerrenda argitaratu eta biharamunetik kontatzen hasita, antzemandako gabeziak konpon ditzaten edo dagokien dokumentazioa osa dezaten. Ezarritako epean egin ezean, eskaera ezin izango da tramitatu.

2.4.- Ikasketa espedientearen batez bestekoa kalkulatzeko, titulazioa lizentziatura, goi mailako ingeniari, arkitektura edo baliokidea izango da, hala eskatzen duten titulazioetan karrera amaierako proiektua ere kalkuluan sartuko da. Master batekin lortzen bada laguntza, masterraren aurreko unibertsitate titulazioa ere balioetsiko da. Baldin eta eskatzaileak bi titulazio baditu, bietako zeinekin eskatzen duen laguntza zehaztu beharko du.

Ikasketa-espedientearen batez besteko nota ateratzeko honako hauei jarraituko zaie: 1497/1987 Errege Dekretua, zeina abuztuaren 1eko 1044/2003 Errege Dekretuak I. eranskinaren bat 5 atalaren bigarren paragrafoan aldatzen baitu, eta irailaren 5eko 1125/2003 Errege Dekretua, eta honela aterako da:

- Antzinako ikasketa planak egin dituzten ikasleentzat:

$$\frac{\text{nahikoen kp. x 1} + \text{oso ongien kp. x 2} + \text{bikainen kp. x 3} + \text{ohorezko matrikulen kp. x 4}}{\text{titulazioaren irakasgai kp. osotara}}$$

- Ikasketa plan berriak egin dituzten ikasleentzat:

$$\frac{(\text{irakasgaiaren kreditu kp. x nota})}{\text{titulazioaren kreditu kp. osotara}}$$

Irizpide hauek erabiliko dira notetarako: nahikoa: 1, oso ongi: 2, bikain: 3, ohorezko matrikula: 4.

Baliokideturiko irakasgaiak edo kredituak “nahikoa” bezala balioetsiko dira, egokitutako irakasgai edo kredituei jatorrizko kalifikazioa emango zaie eta kredituei kalifikaziorik gabe balioa ematea ez da zenbatuko batez besteko nota kalkulatzeko.

2.5.- Eskatzaileek beren ikasketa-espedientearen batez besteko nota jakinaraztera behartuta daude, baldin eta jatorrizko erakundeak ez badu espedientearen informazio hau jasotzen. Nota kalkulatzeko akats esanguratsuren bat atzematen bada, hori nahikoa arrazoi izango da laguntza ukatzeko.

Atzerrian egindako ikasketetarako, Hezkuntza Ministerioak FPU laguntza programetarako ematen dituen eruedetan egin daitezke kalkuluak. Aipatu ereduak url honetan daude:

<http://www.educacion.es/educacion/universidades/convocatorias/titulados-doctores-profesores/fpu.html>

2.6.- Ikerketa Batzordeak laguntzen behin-behineko esleipen proposamena onetsiko du eta Unibertsitateko Errektoretzako iragarki oholean eta hedabide elektronikoetan jarriko du, alde batera utzi gabe interesdunei posta elektronikoaren bidez eginiko jakinarazpena, izaera osagarri eta ofizialarekin, eta 5 egun naturaleko erreklamazio-epea jarriko da proposamena argitaratu eta biharamunetik kontatzen hasita. Erreklamazioak ebatzi ondoren, Ikerketa Batzordeak Unibertsitateko Errektoreari igorriko dio behin betiko esleipen proposamena ebazpenaren bidez onetsia izan dadin. Ebazpen erabakiak Errektoretzako iragarki oholean eta Unibertsitateko hedabide elektronikoetan argitaratuko dira. Lau hilabateko epean, eskaerak aurkezteko epea bukatzen denetik kontatuta, ez bada ebazpenik ematen, eskaerak ezeztatu direla ulertuko da.

### **3.- Laguntzen araubide juridikoa.**

3.1.- Laguntzaren onuradunaren eskubideak eta betebeharrak deialdi honetan ezartzen direnak izango dira, eta 63/2006 Errege Dekretuak onetsitako Prestakuntzan dauden Ikertzaileen Estatutuaren ezar litekeen beste edozein, bai eta Nafarroako Unibertsitate Publikoak, bere Estatutuaren 87. artikulua arau-garapenean ezartzen duen beste edozein ere, eta Langileen Estatutuari dagokionez aplikagarriak zaizkionak.

3.2.- Prestakuntzan dauden ikertzaileei beka modalitateko laguntzak emateak eta hartaz baliatzeak ez du Nafarroako Unibertsitate Publikoarekin inolako kontratu loturarik ezartzen.

3.3.- Deialdi honetan biltzen diren laguntzetako bat, beka- nahiz kontratu- modalitatean, jasotzeak ez dakar inola ere, inongo konpromisorik Nafarroako Unibertsitate Publikoak gero onuraduna bere plantillan sar dezan.

3.4.- Deialdi honetako laguntza jasotzea beka edo kontratu-modalitatean, bateraezina da funts publiko zein pribatuekin finantzaturiko beste edozein laguntza edo beka jasotzearekin, bai eta doakionaren kontratuaren edo estatutuaren bidezko lotura adierazten duten soldata edo diru-sariekin ere, ondoko salbuespen hauekin, Ikerketarako errektoreordeak aldeztatik baimena eman eta gero:

- Ikerketa- edo irakaskuntza-lanen ordainsariak, zuzenki loturik daudenak prestakuntzan dauden ikertzaileek egiten duten ikerketa-jarduerarekin edota beste hauetatik etortzen diren osagarriekin: I+G proiektuetan parte-hartze baimenduak, eta apirilaren 12ko 4/2007 Lege Organikoak aldatzen duen Unibertsitatei buruzko abenduaren 21eko 6/2001 Lege Organikoa aplikatuz, eta, halaber, Ikerketa zientifikoa eta teknikoa sustatzeko eta oro har koordinatzeko apirilaren 14ko 13/1986 Legea aplikatuz egindako kontratuak.
- Mugikortasuna sustatzeko Europako Batzordeak finantzatzen dituen laguntza osagarriak.
- Doktoretza-tesiak egiteko Nafarroako Unibertsitate Publikoaren laguntza osagarriak.

#### **4.- Onuradunen betebeharrak.**

4.1. Onuradunak laguntza onartzeak berarekin dakar deialdi honetan ezarritako arauak onartzea eta baita Nafarroako Unibertsitate Publikoak bere erabilpenaren jarraipen zientifikorako ezartzen dituenak ere.

4.2. Onuradunek ondokoak bete beharko dituzte:

4.2.1. Nafarroako Unibertsitate Publikoan sartzeko laguntzaren helburuko ikerketa lana egiteko xedez, laguntza emateko ebazpenean edo kontratuan adierazten den egunean, eta sartzen ez badira laguntzari uko egiten diotela ulertuko da. Kasu guztietan, Unibertsitatean sartu zeneko eguna eta Gizarte Segurantzako Erregimenean alta emandako eguna bera izango da. Mugikortasun-laguntzen kasuan, laguntza emandako Unibertsitatean edo Ikastegian egonaldia egun horietan egitea.

Laguntzaren onuradunak sartzeko eguna atzeratzea eskatu ahalko du. Atzerapen horrek ezin izango du hilabeteko epea gainditu esleipen-ebazpenean ageri den unibertsitatean sartzeko egunetik kontatzen hasita, eta laguntzaren zuzendariak baimenduko du, Ikerketa Zerbitzuari horren berri emanez.

Ikerketako errektoreordeak, laguntzaren zuzendariak aurretik aldeko txostena egin duela, baimendu ahalko du, ezinbesteko kasuak daudenean, esleipen-ebazpenean aipatutako unibertsitatean sartzeko egunetik hilabete baino denbora gehiagoko atzerapenarekin sartzeko unibertsitatean.

4.2.2. Nafarroako Unibertsitate Publikoko Ikerketarako errektoreordeari igortzea laguntza garatzeko aurreikusitako planaren edo lanaren oroitidazkia, gehienez ere 500 hitzekoa, hasten denetik hilabete bateko epean, eta laguntzaren zuzendariak ontzat eman beharko du.

4.2.3. Esleituriko ikerketa taldean bere lana probetxamenduz egitea.

4.2.4. Nafarroako Unibertsitate Publikoko Ikerketarako errektoreordeari igortzea egindako lanari buruz eskatzen dizkioten txostenak, laguntzaren zuzendariak eta lana burutzen ari den ikerketa taldeko arduradunak ontzat emanak.

4.2.5 Urteko oroitidazkia aurkeztea (gehienez ere 500 hitz), egindako lanaren eta erdietsitako emaitzen laburpena izango duena. Era berean, azaldu beharko da laguntzaren zuzendariak egindako txostena ikerketa taldeko arduradunak ontzat emana. Laguntza berritzeko eskatuz gero, urteko oroitidazki hori berritze eskaerarekin batera aurkeztu beharko da.

4.2.6 Kontratu-aldia baino lehen gaintitzea, doktoretza aurreko laguntzen kasuan, doktoretza-tesiarri buruzko lanaren eta lortutako ikertzeko heldutasunaren gaineko jarraipen-balioespena, zeina aipatzen baitute Nafarroako Unibertsitate Publikoan doktoretza arautzen duten arauetako (2009-1-18ko Gobernu Kontseiluak onetsitakoak) 11. artikulua eta xedapen iragankorrak.

4.2.7 Laguntza jasotzen den bitartean egiten den ikerketa-jardueretatik ondorioztatzen ahal diren argitalpenak eta bestelako emaitzetan aipatu beharko da Nafarroako Unibertsitateak finantzatu duela.

4.2.8 Laguntza-aldia behin betiko bukatu ondoren, egindako lanaren azken oroitidazkia aurkeztu beharko da, laguntzaren zuzendariak ontzat emana eta curriculum gaurkotuarekin batera.

4.3.-Aipaturiko betebeharrak ez betetzeak emandako laguntza baliogabetzea eta behar gabe jasotako diru kopuruak itzultzea ekarriko du, dirulaguntzak emateko, kudeatzeko eta kontrolatzeko erregimen orokorra arautzen duen 11/2005 Foru Legean aurreikusitakoarekin bat etorriz.

4.4.- Lortutako laguntzari uko egiten diotenen, idazki bat aurkeztu beharko diote Ikerketako errektoreordeari, ukoa arrazoituz, eta laguntzaren zuzendariaren izenpearekin. 2010eko uztailaren 31 baino lehenago gertatzen diren laguntza-emate berrien bajak, deialdi honetako gainerako eskatzaileek beteko dituzte, puntuazio-hurrenkeraren arabera. Laguntzari uko egiteko eskaera ondorio-eguna baino 7 egun lehenago aurkeztu behar da gutxienez.

4.5.- Laguntza hauen onuradunek konpromisoa hartzen dute laguntzarekin lotutako lana garatzean lortu diren informazio zientifikoak edo teknikoak ez zabaltzeko, laguntzaren zuzendariaren baimenik ez badute.

4.6.- Laguntza hauen onuradunek Nafarroako Unibertsitate Publikoari uzten dizkiote laguntzaren helburu den ikerketa-jarduereen ondorioz sortzen ahal diren emaitzei legezkiekeen eskubideak. Unibertsitateak laguntza hauen onuradunei, egile diren aldetik, beren eskubideak aitortzen dizkie, lortzen lagundu duten emaitzen gainekoak, Unibertsitateko lan kontratupeko ikertzaileek edo funtzionarioek dituzten baldintza berdinetan.

## 5.- **Gizarte onurak.**

5.1.- Doktoretza aurreko laguntzen onuradunek, beka modalitatea daukatenean, eskubidea edukiko dute Gizarte Segurantzaren afiliatzeko, besteren kontura ari diren langileekin parekaturik, urtarrilaren 27ko 63/2006 EDak ezartzen dituen baldintzen arabera. Babesa Gizarte Segurantzako Erregimen Orokorren dagokiona izango da, langabeziarengatik babesa salbuetsita.

5.2.- Kontratu-modalitateko doktoretza aurreko laguntzen onuradunek eta doktoretza ondoko ikertzaileek izenpeturiko kontratuari dagozkion lan- eta gizarte-onurak izango dituzte.

5.3.- Atzerrian egonaldiak egiteko laguntzen onuradunek eskatzen ahalko dute, egonaldia hasi baino hilabete bat lehenago gutxienez, bidaia-asegurua Ikerketa Zerbitzuan, harrera-herrialdean asistentziarik ez daukatenean. Aseguru hau ordainduko da 2010eko Nafarroako Unibertsitate Publikoaren aurrekontuan horretarako dagoen aurrekontu-sailaren kargura.

## 6.- **Irakaskuntza**

6.1.- Deialdi honetako kontratu-aldian dauden doktoretza aurreko laguntzen onuradunek, eta doktoretza eta geroko laguntzen onuradunek, baimena eskatzen ahalko diete Irakasleen eta Ikerketa errektoreordeei unibertsitateko sail batean irakaskuntza-lanak egiteko, prestakuntza helburuarekin, aldeztu aurretik laguntzaren zuzendariak eta unibertsitateko sail horren zuzendariak ados daudela adierazten badute. Gehienez ere hirurogei ordu/urtean har ditzake lankidetzaren honek, edo haren baliokidea ECTS kreditutan, saileko irakaskuntza antolatzekeo planean zenbatu gabe.

6.2.- Baimena eskatuko da Ikerketa Zerbitzuan aurkeztuz url helbide honetan eskura dagoen inprimakia:

[http://www.unavarra.es/invest/conv\\_ayudas.htm](http://www.unavarra.es/invest/conv_ayudas.htm)

eta laguntzaren zuzendariaren eta saileko zuzendariaren izenpearekin.

## 7.- **Laguntzen etendura.**

7.1.- Beka modalitateko laguntzaren onuradunek eskubidea edukiko dute Gizarte Segurantzaren ekintza babeslearen araubideari dagozkion prestazioak jasotzeko, bertan ezarritako moduan, ekainaren 20ko 1/1994 Errege Dekretu Legegileak, Gizarte Segurantzari buruzko Lege Orokorren Testu Bateratua onesten duenak, ezartzen duenaren arabera, beroriek arrazoitzen dituzten gorabeherak irauten duten denboran. Horren kalterik gabe, Ikerketako errektoreordeak, laguntzaren zuzendariak aurretik aldeko txostena egin duela, eta onuradunaren eskaera arrazoitua tartean dela, emandako laguntzaren luzapena ematen ahalko du, ondorio ekonomikoekin, onuradunaren baja zenbat luzatu den, horrenbeste denboraz, betiere nahikoa diru baldin badago aurrekontuan.

Amatasuneko edo aitatasuneko etenaldiak edo etenaldi-baimenak ezin dira indarrean dagoen legerian ezarritakoak baino handiagoak izan.

Luzapen kasu hauetako edozein gertatuz gero, baimena 2010eko azaroaren 30a baino lehen eskatu behar da.

7.2.- Kontratu modalitateko laguntzaren onuradunek eskubidea edukiko dute Gizarte Segurantzaren ekintza babeslearen araubideari dagozkion prestazioak jasotzeko, bertan ezarritako moduan, ekainaren 20ko 1/1994 Errege Dekretu Legegileak, Gizarte Segurantzari buruzko Lege Orokorren Testu Bateratua onesten duenak, ezartzen duenaren arabera, beroriek arrazoitzen dituzten gorabeherak irauten duten aldiran. Baimenei dagokienean, Langileen Estatutuak eta

aplikagarri diren lege indardunek ezarritakoari jarraituko diote. Kontratuak irauten duen aldiari, Langileen Estatutuaren 45. eta 46. artikuluetan ezarritakoari jarraikiz kontratua eteteak ez dakar laguntzaren iraupena luzatzea.

### **III.- Nafarroako Unibertsitate Publikoaren doktoretza aurreko ikertzaileen prestakuntzarako laguntzak-Lehen eskaera**

#### **8.- Lehen laguntza eskaera**

##### **8.1.- Eskatzaileen baldintzak.**

Laguntzak eskatzen dituztenek baldintza hauetako bat bete behar dute:

- a) Lizentziadun, ingeniari edo arkitekto titulua edo baliokidea lortzeko beharrezkoak diren irakasgai guztiak gaindituta edukitzea, Ikasketa Amaierako Proiektua ere barne, eskaera egiten den unean.
- b) Espainiako Unibertsitateko Master titulu ofiziala izatea, 1393/2007 Errege Dekretuak xedatutakoarekin bat etorritz.
- c) Eurokoa Unibertsitate Eremuko goi mailako hezkuntzako erakunde batek emandako maila bereko titulu bat izatea.
- d) Maila bereko titulu bat izatea, Europako Unibertsitate Eremutik kanpo dauden beste hezkuntza sistema batzuen arabera lortua eta titulua eman den herrialdean doktoretza ikasketetara sartzeko aukera ematen duena. Kasu honetan 1393/2007 Errege Dekretuaren 16. artikuluan xedatutakoari jarraituko zaio, kontratu-aldirako doktoretza ikasketetan sartzeko gaitzen dituen titulua homologa dezatela eskatzea galarazi gabe.
- e) Espainiako Unibertsitateko Master titulu ofizial bat izatea, 56/2005 Errege Dekretuan xedatutakoarekin bat etorritz, 120 kreditu edukiko dituen, baldin eta izangaiari Masterrean sartzeko aukera eman zion titulua diplomadun, irakasle, arkitekto tekniko edo ingeniari tekniko izateko Espainiako titulu ofiziala edo Espainiako edo atzerriko titulu baliokidea bada.
- f) Unibertsitateko Master baten edo batzuen 120 kreditu gainditzea, 56/2005 Errege Dekretuan xedatutakoarekin bat etorritz, baldin eta izangaiari Masterrean sartzeko aukera eman zion titulua diplomadun, irakasle, arkitekto tekniko edo ingeniari tekniko izateko Espainiako titulu ofiziala edo Espainiako edo atzerriko titulu baliokidea bada.
- g) Graduoko titulu ofizial bat izatea, gutxienez 300 kredituko iraupena duena Erkidegoko zuzenbideko arauen arabera.

Aurreko egoera horietako bat baldin badago, eskatzaileek matrikula eginda eduki behar dute Nafarroako Unibertsitate Publikoarena den, edo graduondo edo doktoretza arloan hitzarmena sinatua duen unibertsitate batena den, eta doktore titulua lortzeko aukera ematen duen graduondoko edo doktoretzako programa ofizial batean, deialdi honetako 2.1 idatz-zatian aurreikusitako salbuespenarekin.

Deialdi honetan ezin izango dute parte hartu bestelako laguntza homologagarririk jaso dutenek, doktoretza tesi bat egiteko helburuarekin.

## 8.2. - Eskaeraren baldintza gehigarriak.

- a) Laguntza emateko, 2010eko urtarrilaren 1ean indarra izango duen deialdi publiko baten bidez edo hitzarmen edo kontratu espezifiko baten bidez finantzaturiko ikerketa proiektu bat egon behar da, laguntzaren gaiari buruzkoa.
- b) Ikerketa proiektua Nafarroako Unibertsitate Publikoan garatu beharko du Nafarroako Unibertsitate Publikoko 2009ko erroldan dagoen ikerketa talde batek. Proiektuaren ikertzaile nagusia doktore bat izango da. Doktore hori, onuradunaren proiektua zer ikerketa talderi atxikitzen zaion, talde horretako partaide izango da.
- c) Eskatzaileak bere gain hartuko du eskaeran aurkeztutako ikerketa-proiektuak arestian adierazitako eskakizunak betetzen dituela egiaztatzeko ardura. Izan ere, hala ez bada, ezin izango baitu proiektua aldatu akatsak zuzentzeko epean.
- d) Oro har, ezin izango dira aldatu ez zuzendaria, ez proiektua eta ezta laguntza-eskaera hasieran bermatu zuen ikerketa-taldea ere, behar bezala justifikatutako arrazoiak daudenean izan ezik, eta Ikerketa Batzordearen onespenerekin.

## 8.3. Eskaerak aurkeztea: epeak eta dokumentazioa (Berriztapen eskaerentarako ikus 10. atala):

- a) Inprimaki normalizatua behar da, helbide honetatik jaits daitekeena: [http://www.unavarra.es/invest/conv\\_ayudas.htm](http://www.unavarra.es/invest/conv_ayudas.htm). Eskaera bete eta gero, izenpeturiko ale bat aurkeztu behar da Erregistro Orokorrean, kasu bakoitzean eskatzen diren dokumentuekin batera. Eskaera inprimaki honetan jasotzen den laguntzari zuzendariak emandako oniritziak esan nahiko du ikasleak izenpetzailea tutoretzat onartzen duela, Prestakuntzan dauden Ikertzaileen Estatutuak ezartzen dituen ondorioentarako.
- b) Merezimendu zerrendari buruzko laburpen inprimakia, [http://www.unavarra.es/invest/conv\\_ayudas.htm](http://www.unavarra.es/invest/conv_ayudas.htm) helbide berean dagoena, Alegatutako merezimenduak egiaztatzen dituzten dokumentuak aurkeztuko dira inprimaki horrekin batera. Agiriz egiaztatutako merezimenduak balioetsiko dira bakarrik. Merezimenduak aurkeztu eta frogatzea ez denez baldintza baztertzailerik deialdian, eskatzaileak ez badu dokumentazio hori aurkezten, Unibertsitateak ez ditu merezimendu horiek balioetsiko, eta ez du eskatuko haiek egiaztatzea.

- Egiaztatzeko ahalmena beren arauetan ez daukaten pertsonak, organoek edo erakundeek luzatzen dituzten agiriak ez dira kontuan hartuko.
- c) Nortasun Agiri Nazionalaren edo pasaportearen fotokopia.
  - d) Izandako kalifikazioak eta horiek zein egunetan eman ziren adierazten duen ikasketa-ziurtagiriaren fotokopia. Nafarroako Unibertsitate Publikoko tituladunek ez dute agiri hau aurkeztu beharko.
  - e) Titulazioaren batez besteko notaren egiaztagiria, 8.2.2 a atalean ezartzen denarekin bat etorritik.
  - f) Laguntza-eskaera honetan aurkeztu den tituluaren fotokopia. Nafarroako Unibertsitate Publikoko tituladunek ez dute agiri hau aurkeztu beharko.
  - g) Baldin eta deialdi honetako oinarrietan interesdunei eskatzen zaizkien agiriak dagoeneko Nafarroako Unibertsitate Publikoaren eskuetan badaude, interesdunek ez dute aurkeztu beharko, baina gorabehera hau idatziaren bidez azaldu beharko dute, zer agiriri buruz ari diren eta noiz aurkeztu zen esanez.

#### **8.4.- Izangaiak hautatzea.**

8.4.1.- Laguntzak azpibatzen diren arabera banatuko dira, ondoren adierazten den bezala:

Horietako 4 A azpibatzen diren (Ingeniaritza eta Teknologia), 4 B azpibatzen diren (Osasun Zientziak eta Oinarrizkoak), 2 C azpibatzen diren (Zientzia Ekonomikoak eta Juridikoak), 2 D azpibatzen diren (Giza eta Gizarte Zientziak) eta 1 C eta D azpibatzen diren laguntzen onuradunak ez diren eskaera-egileen espediente haztatu onenarentzat.

8.4.2.- Nafarroako Unibertsitate Publikoko Ikerketa Batzordeak egingo du izangaien aukeraketa, honako hauek kontuan hartuz:

- a) Titulazioko espedientearen batez bestekoa: 4 puntu, gehienez ere.

Kontuan hartuko da espedientearen batez bestekoa, 2007-2008 ikasturteko titulazioari dagokion batez bestekoarekin haztatuz, ikasketak noiz bukatu diren aintzat hartu gabe, formula honen arabera:

$$\text{Nota haztatua} = 1,5 + 2,5 \times \frac{(\text{eskatzailearen espedientearen batez bestekoa} - \text{titulazioaren batez besteko nota})}{(4 - \text{titulazioaren batez besteko nota})}$$

Nafarroako Unibertsitate Publikoko ikasleek ez dute aurkeztu beharko informazio hau, Irakaskuntza Laguntzeko eta Ikasleen Gaietarako Zerbitzuak emango baitu. Nafarroako Unibertsitate Publikoko ikasle guztiei aplikatuko zaie ezarri den haztatze-formula. Beste hainbat unibertsitatetatik datozen ikasleen kasuan, beren erantzukizuna izango da datu hori ematea. Datu hori ez badago, aurreko formula aplikatuko zaie titulazioaren batez besteko nota gisa erabiliz deialdi honetako gainerako izangaiei aplikatutako nota handiena

- b) Izangaiaren merezimenduak 0,5 puntu, gehienez ere.
- |             |     |
|-------------|-----|
| Ikerketa    | 0,3 |
| Ikastaroak  | 0,1 |
| Bestelakoak | 0,1 |
- Deialdiaren I. eranskinak ezartzen duenaren arabera
- c) Unibertsitateko politika 2 puntu, gehienez ere.  
(azpibatzerde bakoitzari dagokionez)
- |                            |   |
|----------------------------|---|
| Taldearen balioespena      | 1 |
| Taldearen harrera ahalmena | 1 |
- Deialdiaren II. eranskinak ezartzen duenaren arabera
- d) Ikerketa proiektua edo lurraldearen arabera parekatutako hitzarmenak. Puntu bat, gehienez ere.
- |   |     |
|---|-----|
| Esparru-programa (EB) edo beste programa batzuk, baldintzetan eta konkurrentzian antzeko ezaugarriak dituztenak | 1   |
| Plan Nazionala  | 0,8 |
| Nafarroako Gobernua edo antzekoa  | 0,5 |

8.4.3.- Doktoretza aurreko laguntza bakoitzaren zuzendari bakoitzak ezin izango ditu zuzendu deialdi honi dagokion laguntza berriaren onuradun bat edo deialdi osoko doktoretza aurreko bi onuradun baino gehiago.

## **9.- Doktoretza aurreko laguntzaren helburua eta baldintzak.**

9.1.- Laguntza edukitzeko funtsezko helburua doktoretza tesi bat egitea izango da.

9.2.- Laguntzaren aldia gehienez 48 hilabetekoa izango da, laguntza eman zuen ebazpenean aipatzen den egunetik kontatzen hasita (hasierako eguna), eta urte bereko abenduaren 31ra arte emango da. Laguntza hori urte natural bakoitzeko berrituko dira, baldin eta aurrekontuetan diru hornidura nahikoa badago eta laguntza ongi baliatzen bada, eta bi alditan banatzen da:

- a) Gutxienez 24 hilabete izango dituen lehen aldian, laguntzak beka baten ezaugarriak edukiko ditu, eta aldi horretan, prestakuntzan dauden ikertzaileek ikertzeko gaitasuna gaingaitu behar dute IAD lortuz edo 4.2.8 artikulua aipatutako proba gaingaitu behar dute. Nahiz eta prestakuntzan dauden ikertzaileek baldintza hauetariko edozein bete bekaren lehengo bi urteak bukatu baino lehenago, ez dira kontratu-aldira pasatuko beka aldia burutu baino lehen. Beka modalitatean izan diren etenaldiek beka aldiaren iraupena luza dezakete, betiere baimenduak izan badira.

aldez aurretik Ikerketako errektoreordeari eskatu bazaio, eta honek baimena eman badu. Eskaera hau aldia bukatuko den eguna baino hilabete lehenago, gutxienez, aurkeztu behar da.

- b) Beka aldia bukatu eta gehienez ere ondorengo bi urteetarako izango den bigarren aldian, Unibertsitateak praktiken aldiko lan-kontratu bat egingo du doktoretza aurreko prestakuntzan dagoen ikertzailearekin, 63/2006 Errege Dekretuak eta Langileen Estatutuak esaten dutenarekin bat etorritik. Horri begira, azpimarratu behar da lege indardunek ezartzen dutela kontratu hauek ikasketak bukatu eta ondorengo lau urteen barnean egingo direla, eta gutxienez sei hilabetetarako eta gehienez bi urtetarako gauzatuko direla. Kontratua gauzatzeari begira, ikasketak IAD edo baliokidea lortutako egunean bukatu zirela ulertuko da.
- c) Praktiken aldiko lan-kontratua egitea ezinezkoa bada a) puntuan aipatutako arrazoiengatik, edo do ez badira kontratu hori egiteko baldintzak betetzen Langileen Estatutuak esaten duenaren arabera, laguntzak indarrean segitzen ahal du beka moduan.
- d) Tesia aurkezteak eta doktore titulua lortzeak ez dute laburtuko laguntzaren onuradunak duen kontratuaren urtesaria eduki ahal izateko gehienezko epea. Hala ere, doktore titulua beka aldian lortzen bada, ez da zilegi izango kontratua gauzatzea eta beka aldia bukatzen denean laguntza ere bukatuko da.

9.3. Onuradun bihurtzen direnek deialdi honetako 4.4. atalean aurreikusten diren ukoengatik, gehienez 48 hilabeteko laguntza edukiko dute, sartze-egunetik kontatzen hasita, betiere aurrekontu nahikorik dagoelako eta laguntza behar bezala aprobetxatuko delako baldintzak betez gero.

9.4.- Laguntzen zuzkidura, beka aldian, 1.120 euro gordinetara izango da, hilabeteko. Hilabeteko zuzkidura honetatik kenduko da kotizatu behar duten kuota. Unibertsitateak bere gain hartuko ditu Gizarte Segurantzako enpresa-kuotak, urriaren 24ko 63/2006 EDak ezartzen duen moduan.

9.5.- Kontratu aldiko laguntzen zuzkidura 16.100 euro gordinetara izango da, urteko, 1.150 euro gordinetara 14 hilabeteko ordainketetan banaturik. Hilabeteko zuzkidura honetatik kenduko da kotizatu behar duten kuota. Unibertsitateak bere gain hartuko ditu Gizarte Segurantzako enpresa-kuotak, urriaren 24ko 63/2006 EDak ezartzen duen moduan.

9.6.- Doktoretza aurreko laguntzaren barnean sartzen dira, baita ere, Nafarroako Unibertsitate Publikoan 2009-2010 ikasturtean doktoretza ikastaroetan matrikulatzeko prezio publikoak. Edozein modutan ere, laguntza hau ez da izango 32 kreditu baino gehiagokoa onuradun bakoitzeko, laguntza edukitzen den gehienezko epearen barruan, doktoretza ikasketak direnean, eta 60 kreditu masterreko ikasketak direnean.

#### **IV.- Nafarroako Unibertsitate Publikoaren doktoretza aurreko ikertzaileen prestakuntzarako laguntzak berritzeko modua**

##### **10.- Aurreko deialdietako laguntzak berritzea.**

10.1.- Lehenagoko deialdi bateko laguntza berritzeko eskaera Unibertsitateko Erregistro Orokorrean auzkertu beharko da. Doktoretza aurreko laguntzak berritzeko eskaerak aurkezteko epea 10 astegunekoa izango da, laguntzen deialdia Unibertsitatearen web-orrialdean argitaratzen den egunaren biharamunetik kontatzen hasita.

10.2.- Eskatzaileak matrikula eginda eduki behar du Nafarroako Unibertsitate Publikoan, doktore titulua lortzeko den graduondoko edo doktoretzako programa ofizial batean, edo, bestela, graduondo edo doktoretza arloan gurearekin hitzarmena duen unibertsitate bateko programa ofizial batean.

10.3.- Honako agiri hauek aurkeztu beharko dira:

- a) Inprimaki normalizatua, behar bezala beteta.
- b) Egindako lanari buruzko oroitidazkia, laguntzaren zuzendariaren aldeko txostenarekin.
- c) Ikerketa taldeko arduradunaren oniritzia.

10.4.- Aurkezten diren agiriak ikusirik, Ikerketa Batzordeak berritzeko eskaerak ebatziko ditu, egoki jotzen badu argibide gehiago eskatzen ahal duelarik.

10.5.- Deiladi honetako oinarrien bederatzigarren atalak ezartzen dituen baldintzak betez, berritutako laguntzak laguntzen lehen edo bigarren faseei (bekei edo kontratuei) gehituko zaizkie.

#### **V.- Nafarroako Unibertsitate Publikoaren doktoretza ondoko ikertzaileen prestakuntzarako laguntzak.**

##### **11.- Eskatzaileen baldintzak.**

11.1.- Nafarroako Unibertsitate Publikoko doktoretza ondoko ikertzaileen prestakuntzarako laguntzek honako helburu hauek dituzte: Doktoretza titulua eskuratu berri duten ikertzaileen ikertzeko gaitasuna bultzatzea, eta Nafarroako Unibertsitate Publikoaren ikertzeko jarduna gehiagotzea. Doktore maila 2006ko urtarrilaren 1az geroztik lortu duten ikertzaileei zuzentzen zaizkie.

11.2.- Laguntza hauen onuradunak izateko honako hauek izango dira bete beharreko baldintzak:

- 2009ko abenduaren 31n doktorea izatea.
- Unibertsitatean 2009an erroldatuta dagoen Nafarroako Unibertsitate Publikoko ikerketa talde bateko ikerketa-lerro batean sartzea.
- Laguntzaren zuzendariaren eta ikerketa taldeko arduradunaren oniritzia.

##### **12.- Izangaien baldintzak eta hautaketa.**

12.1. Laguntzaz baliatzeko, lan-kontratu bat gauzatu da onuradunaren eta Nafarroako Unibertsitate Publikoaren artean, martxoaren 24ko 1/1995 Errege Dekretu Legegileak onetsi zuen Langileen Estatutuen testu bateratuak ezartzen duenarekin bat etorritik. Kontratuak urtebeteko iraupena edukiko du gehienez.

12.2. Kontratuaren zuzkidura 16.800 euro gordinetara da, urteko, 1.200 euro gordinetara 14 hilabeterokotan banatua. Hilabeteroko zuzkidura honetatik kenduko da kotizatu behar duten kuota. Unibertsitateak bere gain hartuko ditu Gizarte Segurantzako enpresa-kuotak, urtarilaren 27ko 63/2006 EDak ezartzen duen moduan.

12.3. Ikerketa errektoreordeak baimena ematen ahal die laguntza hauen onuradunei, laguntzaren zuzendariak alde aurretik aldeko txostena eman eta gero, egonaldi laburrak egiteko, bai Espainiako ikerketa zentroetan, baita atzerrikoetan ere, beren ikerketa-prestakuntza osatzeko.

12.4. Nafarroako Unibertsitate Publikoko Ikerketa Batzordeak egingo du izangaien hautaketa, izangaiak ikerketan dituen merezimenduak aintzat hartuz, ondoren zehazten den baremoaren arabera:

Argitalpenak	4 puntu, gehienez ere.
Kongresuetako parte hartzeak	2 puntu, “
Ikerketa Zentroetako egonaldiak	2 puntu, “
Proiektuak eta kontratuak	puntu 1, “
Doktoretza aurreko beken onuraduna izana	2 puntu, “
Beste merezimendu batzuk	puntu 1, “

Deialdiaren III. eranskinak ezartzen duenaren arabera

12.5. Hau bezalako beka edo laguntza baten onuradun izan diren izangaien baremoaren azken puntuazioari 0,5 biderkatuko zaio.

12.6. Laguntzaren zuzendari bakoitzak ezin izango du deialdi honetako doktoretza ondoko ikertzaile bat baino gehiago zuzendu.

### 13.- Eskaerak aurkezteko epeak eta dokumentuak:

- e) Inprimaki normalizatua, helbide honetatik jaitz daitekeena:  
[http://www.unavarra.es/invest/conv\\_ayudas.htm](http://www.unavarra.es/invest/conv_ayudas.htm). Eskaera bete eta gero, izenpeturiko ale bat aurkeztu behar duzu Erregistro Orokorrean, kasu bakoitzean eskatzen diren dokumentuekin batera. Eskaera inprimaki honetan jasotzen den laguntzari zuzendariak emandako oniritziak esan nahiko du izenpetzailea tutoretzat onartzen dela, Prestakuntzan dauden Ikertzaileen Estatutuak ezartzen dituen ondorioetarako.
- f) Merezimendu zerrendari buruzko laburpen inprimakia, [http://www.unavarra.es/invest/conv\\_ayudas.htm](http://www.unavarra.es/invest/conv_ayudas.htm) helbide berean dagoena. Alegatutako merezimenduak egiaztatzen dituzten dokumentuak aurkeztuko dira inprimaki horrekin batera. Agiriz egiaztatutako merezimenduak balioetsiko dira bakarrik. Merezimenduak aurkeztu eta frogatzea ez denez baldintza baztertzailerako deialdian, eskatzaileak ez badu dokumentazio hori aurkezten, Unibertsitateak ez ditu merezimendu horiek balioetsiko eta ez du eskatuko haiek egiaztatzea. Egiaztatze ahalmena beren arauetan ez daukaten pertsonak, organoak edo erakundeak luzatzen dituzten agiriak ez dira kontuan hartuko.
- g) Nortasun Agiri Nazionalaren edo pasaportearen fotokopia.
- h) Laguntza-deialdi honetan aurkeztu den titularen fotokopia. Nafarroako Unibertsitate Publikoko tituladunek ez dute agiri hau aurkeztu beharko.
- i) Baldin eta deialdi honetako oinarrietan interesdunei eskatzen zaizkien agiriak dagoeneko Nafarroako Unibertsitate Publikoaren eskuetan badaude, interesdunek ez dute aurkeztu beharko, baina gorabehera hau idatziaren bidez azaldu beharko dute, zer agiriri buruz ari diren eta noiz aurkeztu zen esanez.

## **VI- Mugikortasun laguntzak Nafarroako Unibertsitate Publikoko deialdi honetako doktoretza aurreko ikertzaileentzat**

### **14. Helburuak eta eskatzaileen betebeharrak.**

14.1. Laguntza hauek atzerriko zentroetan, beren prestakuntza hobetzeko asmoz, egonaldiak egingo dituztenentzat dira, honelako lanetan aritzeko: ikerketa laborategiko lanak, funts bibliografikoen edo agirien kontsulta, instrumentuen bidezko teknika berriak ikastea, eta bestelako ikerketa jarduerak. Salbuespen gisa, eta egonaldiaren xedearen arabera, nazioko ikerketa zentroetan egonaldiak egiteko laguntzak eman ahalko dira.

14.2. Laguntza hauen onuradunak deialdi honetako doktoretza aurreko ikertzaileen prestakuntzarako laguntza baten onuradunak direnak izango dira, bakarrik.

14.3. Eskaearak Ikerketa Zerbitzuan aurkeztuko dira 15 asteguneko apean, deialdi honetako doktoretza aurreko laguntzak emateko ebazpena ematen den egunetik zenbatzen hasita. Beharrezko agiriak:

- Eskaera-inprimakia, laguntzaren zuzendariaren oniritziarekin.
- Zentro hartzailearen harrera-agiria.
- Egin beharreko lanaren oroitidazkia, 300 hitz gehienez, laguntzaren zuzendariak ontzat emanda.

14.4. Ikerketa Batzordeak ondoko irizpide hauek hartuko ditu aintzat laguntzak emateko orduan:

- Proposamenaren interes zientifikoa.
- Proposamena tesi-proiektuari noraino egokitzen zaion.
- Ikerketa Batzordeko azpibatzerdeen artean proportzioz banatzea.

### **15. Laguntzen baldintzak eta ordainketa.**

15.1. Laguntza hauek jaso ahal izateko, egonaldiak 2010eko urtarrilaren 1 eta abenduaren 31 artean gertatuko dira. Egonaldiaren iraupena bi aste eta lau hilabeteren artekoa izango da.

15.2. Laguntza guztiek, osotara, ez dute 24.000 euro baino gehiago egingo. Laguntza bakoitzak ondoren aipatzen diren mugen arabera kalkulatu da:

- 630 euro hilabeteko, edo bere zati proportzionala, ostatu eta mantenu gastuetarako.
- 600 euro arte bidaia-gastuengatik, bidaia Europako herrialde batera denean, joaneko bidaia bat eta etorriko beste bat baizik ezin direlarik finantzatu.
- 1.200 euro arte bidaia-gastuengatik, bidaia Europakoa ez den munduko herrialde batera denean, joaneko bidaia bat eta etorriko beste bat baizik ezin direlarik finantzatu.

15.3 Unibertsitateko Kontabilitate Atalak ordainduko ditu laguntzak, aurrerapena kontzeptuan, aldezturik aurkeztuz gero Ikerketa Zerbitzuan egonaldia egingo deneko egunen berrespena.

15.4. Egonaldia bukatutakoan, onuradunak frogatu beharko du egonaldia burutu duela Ikerketarako Zerbitzuan, egonaldia bukatu eta hamabost eguneko epean.

Justifikazio zientifikoak zentro hartzailearen arduradunaren egiaztagiri bat edukiko du, zeinean bilduko baitira lanaren hasiera eta bukaera egunak, eta jardunaren nondik norakoa deskribatzen duen oroitidazki bat, 500 hitzekoa gehienez, laguntzaren zuzendariaren oniritziarekin.

Justifikazio ekonomikoak emandako laguntza osoa hartuko du aintzat: garraio-txartelak, hiri hartzailean egon bitartean egindako joan-etorriak barne,

eta jatorrizko fakturak ostatu-gastuak barne. Ez da beharrezkoa izango mantenu gastuak fakturekin justifikatzea.

15.5. Laguntza jaso duen egonaldia ez bada burutzen, onuradunak laguntza itzuli beharko du 2010eko abenduaren 31 baino lehen.

15.6. Baldin eta justifikazio ekonomikoa eman den zenbatekoa baino txikiagoa bada, onuradunak justifikatu ez duen kopurua itzuli beharko du 2010eko abenduaren 31 baino lehen.

## VII.- Argitaratzea eta Errekurtsoak.

### 16.- Argitalpenak.

16.1 Deialdi hau Unibertsitatearen webgunean argitaratuko da doktoretza aurreko laguntzak berritzeko eskaerak aurkezteari begira, eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean gainerako laguntzei begira. Horrez gain, deialdi hau jarriko da Unibertsitatearen hedabide elektronikoetan eta Ikasgelategiko iragarki oholetan, Unibertsitateko errektoretzan, Osasun Ikasketen Unibertsitate Eskolan eta Tuterako campuseko ikasgelategiko iragarki oholetan.

### 17.- Baliabideak

17.1 Deialdi hau edo bere oinarriak onesten dituen erabakiaren aurka berraztertze errekurtsoa aurkez daiteke, errektorearen aurrean, hilabeteko epean, web gunean argitaratzen den egunaren biharamunetik zenbatzen hasita, eta Unibertsitateko iragarki oholetan argitaratzen den egunaren biharamunetik zenbatzen hasita, laguntzak berritzeko bada, eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean gainerako laguntzei begira, edo Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, Nafarroako Epaitegien aurrean, bi hilabeteko epean, argitaratu eta biharamunetik zenbatzen hasita.

## I. ERANSKINA

### DOKTORETZA AURREKO IKERTZAILEEN PRESTAKUNTZARAKO LAGUNTZEN BAREMOA (NORBERAREN MEREZIMENDUAK)

Oinarrietako 8.2.2 atalak ezartzen duenarekin bat etorriz.

Ikerketa jarduera	0,3
Ikastaroak	0,1
Beste merezimendu batzuk	0,1

### IKERKETA-JARDUERA

Ikerketa jardueraren kategoriak	
Argitalpenak	0,3
Biltzarrak	0,2
Proiektuetan parte hartzea	0,2

	EKARPENA	PUNTUAK	MAILA	
1	Nazioarteko aldizkarietako artikulua edo nazioarteko liburuetako kapituluak.	1,6	<b>Argitalpenak</b>	<b>Gehieneko kopuru normalizatua</b>  <b>0,3</b>
2	Nazioarteko liburuak, osorik.	1,6		
3	Nazioko liburuak, osorik.	0,8		
4	Nazioko aldizkarietako artikulua edo nazioko liburuetako kapituluak.	0,4		
5	Beste argitalpen batzuk	0,2		
6	Nazioarteko biltzarretarako ponentzia gonbidatuak.	1,2	<b>Biltzarrak</b>	<b>Gehieneko kopuru normalizatua</b>  <b>0,2</b>
7	Nazioko biltzarretarako ponentzia gonbidatuak.	0,4		
8	Nazioarteko biltzarretarako komunikazioak edo posterrak.	0,5		
9	Nazioko biltzarretarako komunikazioak edo posterrak.	0,3		
10	Europako Batasuneko proiektuetan parte hartzea	0,6	<b>Proiektuak</b>	<b>Gehieneko kopuru normalizatua</b>  <b>0,2</b>
11	Plan Nazionalaren edo antzekoen ikerketa-proiektuetan parte hartzea	0,4		
12	Esparru autonomikoko proiektuetan parte hartzea	0,2		
13	Unibertsitateek finantzaturako proiektu lehiakorretan parte hartzea	0,1		
14	LOUko 83. artikulua aipatzen dituen kontratuetan parte hartzea.	0,1		
15	Ikastaroak eta mugikortasuna	Gehieneko Kopurua		<b>0,1</b>
16	Informatika	0,02	<b>Beste merezimendu batzuk</b>	<b>Gehieneko kopuru normalizatua</b>  <b>0,1</b>
17	Zientziarako interesgarri diren hizkuntzak	0,02		
18	Gaiarekin zerikusia duen lanbide jardura	0,02		
19	Karrera amaierako aparteko sariak	0,05		

Argitalpenak, komunikazioak eta ponentziak: onespina edo argitalpena egiaztatzea. Biltzarretan parte hartu gabe egon direnei prestakuntza atalean hartuko zaie hori kontuan.

Proiektuak: beharrezkoa da egiaztatzea eskatzailea proiektuaren ikerketa taldekoa dela, ez bada proiektuaren arduraduna Nafarroako Unibertsitate Publikoa dela; kasu hauetan, proiektuaren eta deialdiaren datuak adieraziko dira, dokumentazioa errazago topatu ahal izateko.

Kontratuak: Kontratudunak kontratuaren testuan taldeko partaide bezala agertzen direnean edo beka bat eduki dutenean, orduan bakarrik balioetsiko dira LOUren 83. artikulua araberako kontratu atxikipenak.

#### Merezimenduen kalkularen xehetasunak

Kasu guztietan onetsitako edo argitaratutako ekarpenak aintzat hartuko dira. Proiektuetan, ikastaroetan eta abarretan parte hartu izana aski dokumentaturik egon behar da.

Agiriz egiaztatutako merezimenduak bakarrik balioetsiko dira.

Egiaztatzeko ahalmena beren arauetan ez daukaten pertsonak, organoek edo erakundeek luzatzen dituzten agiriak ez dira kontuan hartuko.

Prozesua bereiz egiten da lau azpibatzerdeetako eskatzaileentzat.

Ikerketa jarduera, 0,3 puntu gehienez. Aintzat hartuko dira: argitalpenak, komunikazioak edo posterrak biltzarretan eta finantzaturiko ikerketa-proiektuetan parte hartzea. Ekarpen bakoitza ondoren azaltzen den moduan balioetsiko da: nazioarteko aldizkarietako artikulak edo nazioarteko liburuetakoa kapituluak, 16 puntu; nazioarteko liburu osoak, 16 puntu; nazioarteko liburu osoak, 8 puntu; nazioarteko aldizkarietako artikulak edo nazioarteko liburuetakoa kapituluak, 4 puntu; bestelako argitalpenak, 2 puntu; nazioarteko biltzarretarako ponentziak, 12 puntu; nazioarteko biltzarretarako ponentziak, 4 puntu; nazioarteko biltzarretarako komunikazioak edo posterrak, 5 puntu; nazioarteko biltzarretarako komunikazioak edo posterrak, 3 puntu; Europar Batasuneko proiektuetan parte hartzea, 6 puntu; Plan Nazionaleko proiektuetan edo parekatuetan parte hartzea, 4 puntu; autonomia eremuko proiektuetan parte hartzea, 2 puntu; Unibertsitateek finantzaturiko proiektu lehiakorretan parte hartzea, puntu 1; LOUren 83. artikularen arabera kontratuetan parte hartzea, puntu 1. argitalpenen atalean gehien balioesten den eskatzaileari 0,3 puntu emango zaizkio, 0,2 biltzarren atalean gehien balioesten denari eta 0,2 proiektuen parte hartzeagatik atalean gehien balioesten denari. Azkenik, ekarpen mota bakoitzari dagozkien balio partzialak gehitu egiten dira. Gero puntuazioak normalitzen dira, gehien balioesten den eskatzaileari 0,3 puntu emanaz.

Ikerketa-jarduerarako interesgarriak diren prestakuntza ikastaroak, mugikortasun programak barne: 0,1 puntu gehienez.

- Ikastaroko 10 ordu 0,01 puntuz balioesten dira. Egondikoko hilabete bakoitza 0,01 puntuz balioesten da.
- Egiaztatzen direnak balioetsiko dira, gehienez ere 100 ordu, beste titulazio batzuk, doktoretza ikastaroak, IGI (Irakaskuntzarako gaitasun ikastaroa), eta abar sartuz, baita jardunaldi eta biltzarretara joatea ere, hauetan 5 ordu eguneko balioetsiko delarik. Iraupena zehazten ez bada, 10 ordu balioetsiko dira. Hizkuntza eta informatika ikastaroak balioetsiko dira, hala badagokio, bestelako merezimenduen atalean.
- Mugikortasuna: Jatorrizkoa ez den erakundean 10 hilabeteko egondikoko balioetsiko da, gehienez (egondikoko Unibertsitate Publikoan egin dutenei ere balioetsiko zaie)

Beste merezimendu batzuk: 0,1 puntu, gehienez ere:

- Informatika: gehienez ere 0,02 puntu, 4 aplikazio ezagutu edo erabiltzen jakiteagatik.
- Zientziarako interesgarriak diren hizkuntzak: bakarrik Hizkuntza Eskola Ofizial, Goethe Institut, Alliance Française, Cambridge University eta abarren egiaztatutako ofizialak balioetsiko dira. Oinarrizko zikloa edo baliokidea 0,005 puntuz balioetsiko da eta 0,01 puntuz goi zikloa edo baliokidea.
- Lanbide jarduera interesgarriak: lanaldi osoko 20 hilabete 0,02 puntuz balioetsiko dira. Lanbide-jardura-beka justifikatutakoak lanaldiaren 1/3 batekin baliokidetzen dira.
- Aparteko sariak gehienez ere sari bat, 0,05 puntuz balioetsiko dena.
- Azkenik, puntuazioak batu eta normalizatzen dira, gehien balioesten den eskatzaileari 0,1 puntu emanaz.

## II. ERANSKINA

### DOKTORETZA AURREKO IKERKETA-BEKAK BALIOESTEKO BAREMOA (UNIBERTSITATEAREN POLITIKA)

Taldearen balioespena 2009ko talde erroldatuen balioespenaren arabera, Ikerketa Batzordeak onetsia, 2004tik 2008rako urteei dagokiena.

Taldearen harrera ahalmena:

**Taldearen ahalmena** 2009ko taldeen erroldako datuekin kalkulatu da.

1 — (Ei bekaduna NUP i \* bekaren bizi-luzetasun faktorea i/ (U. irakaskidegoetako doktoreak + taldeak azken 5 urteetan irakurritako tesiak)

Bizi-luzetasun faktoreak: lehen urteko beka, 1, bigarren urteko beka, 0,75, hirugarren urteko beka, 0,5, laugarren urteko beka, 0,25.

## III. ERANSKINA

### DOKTORETZA ONDOKO IKERTZAILEEN PRESTAKUNTZARAKO LAGUNTZEN BAREMOA

MAILAK	
Argitalpenak	4
Biltzarrak	2
Egonaldiak	2
Proiektuetan parte hartzea	1
Dokoretza aurreko beka eduki izana	2
Beste merezimendu batzuk	1

Oinarrietako 14.4 atalak ezartzen duenarekin bat etorriz.

	EKARPENA	PPUNTUAK	MAILA	PUNTUAK
1	Nazioarteko aldizkarietako artikulak edo nazioarteko liburuetak kapituluak.	1,6	Argitalpenak	Gehieneko kopuru normalizatua 4
2	Nazioarteko liburuak, osorik.	1,6		
3	Nazioko liburuak, osorik.	0,8		
4	Nazioko aldizkarietako artikulak edo nazioko liburuetak kapituluak	0,8		
5	Beste argitalpen batzuk	0,2		
6	Nazioarteko biltzarretarako ponentzia gonbidatuak.	1,2	Biltzarrak	Gehieneko kopuru normalizatua 2
7	Nazioko biltzarretarako ponentzia gonbidatuak.	0,4		
8	Nazioarteko biltzarretarako komunikazioak edo posterrak	0,5		
9	Nazioko biltzarretarako komunikazioak edo posterrak	0,3		

## Merezimenduen kalkuluaren xehetasunak

Kasu guztietan onetsitako edo argitaratutako ekarpenak aintzat hartuko dira. Proiektuetan, ikastaroetan eta abarretan parte hartu izana aski dokumentaturik egon behar da.

Argitalpenak, komunikazioak eta ponentziak: onespena edo argitalpena egiaztatzea. Biltzarretara joatea baina bertan parte hartu gabe prestakuntza atalean hartuko da kontuan.

Proiektuak: beharrezkoa da egiaztatzea eskatzailea proiektuaren ikerketa taldekoa dela, ez bada proiektuaren arduraduna Nafarroako Unibertsitate Publikoa dela; kasu hauetan, proiektuaren eta deialdiaren datuak adieraziko dira, dokumentazioa errazago topatu ahal izateko.

Kontratuak: LOUren 83. artikulua araberako kontratuak baizik ez dira balioetsiko, kontratuaren testuan taldeko partaide bezala agertzen denengan, edo beka bat eduki duenean.

- Argitalpenak: 4 puntu gehienez. Ekarpen bakoitza ondoren azaltzen den moduan balioetsiko da: nazioarteko aldizkarietako artikulua edo nazioarteko liburu etako kapituluak, 1,6 puntu; nazioarteko liburu osoak, 1,6 puntu; nazioko liburu osoak, 0,8 puntu; nazioko aldizkarietako artikulua edo nazioko liburu etako kapituluak, 0,8 puntu; bestelako argitalpenak, 0,2 puntu. Azkenik puntuazioak normaltzen dira, gehien balioesten den eskatzaileari 4 puntu emanez.
- Biltzarretan parte hartzea (biltzarretarako komunikazioak edo posterrak), 2 puntu gehienez. Ekarpen bakoitza ondoren azaltzen den moduan balioetsiko da: nazioarteko biltzarretarako ponentziak, 1,2 puntu; nazioko biltzarretarako ponentziak, 0,4 puntu; nazioarteko biltzarretarako komunikazioak edo posterrak, 0,5 puntu; nazioko biltzarretarako komunikazioak edo posterrak, 0,3 puntu. Azkenik puntuazioak normaltzen dira, gehien balioesten den eskatzaileari 2 puntu emanez.
- Ikerketa Zentroetako egonaldiak: 2 puntu gehienez. Jatorrizkoa ez den erakundean egonaldia balioetsiko da, 0,1 hilabete bakoitzeko.
- Finantzaturiko ikerketa proiektuetan parte hartzea, puntu 1 gehienez. Ekarpen bakoitza ondoren azaltzen den moduan balioetsiko da: Europar Batasuneko proiektuetan parte hartzea, 0,6 puntu; Plan Nazionaleko proiektuetan edo parekatuetan parte hartzea, 0,4 puntu; autonomia eremuko proiektuetan parte hartzea, 0,2 puntu; Unibertsitateek finantzaturiko proiektu lehiakorretan parte hartzea, 0,2 puntu; LOUren 83. artikulua araberako kontratuetan parte hartzea, 0,1 puntu. Azkenik puntuazioak normaltzen dira, gehien balioesten den eskatzaileari 1 puntu emanez.

10	<b>Egonaldiak</b>		Gehienezko puntuazioa	<b>2</b>
11	Europar Batasuneko proiektuak	0,6	<b>Proiektuak</b>	<b>Gehienezko kouru normalizatua 1</b>
12	Plan Nazionaleko proiektuak edo parekatuak	0,4		
13	Autonomia eremuko proiektuak	0,2		
14	Unibertsitateek finantzaturako proiektuak	0,2		
15	LOUren 83. artikulua araberako kontratuetan parte hartzea	0,1		
16	<b>Doktoretza aurreko beka edo laguntzak izatea</b>		Gehienezko puntuazioa	<b>2</b>
17	Informatika	0,2	<b>Beste merezimendu batzuk</b>	<b>Ghienezko kouru normalizatua 1</b>
18	Hizkuntzak	0,2		
19	Gaiarekin lotura duen lanbide-jarduera	0,4		
20	Prestakuntza ikastaroak	0,4		

- Doktoretza aurreko beken onuraduna izatea, 2 puntu gehienez. Bekaren onuradun izateagatik, urte bakoitzeko, 0,5 puntu emango dira.

Beste hainbat merezimendu, puntu 1 gehienez.

Informatika: gehienez ere 0,2 puntu, 4 aplikazio ezagutu edo erabiltzen jakiteagatik.

Zientziarako interesgarriak diren hizkuntzak: gehienez 0,2 puntu. bakarrik Hizkuntza Eskola Ofizial, Goethe Institut, Alliance Française, Cambridge University eta abarren egiaztagiri ofizialak balioetsiko dira. Oinarrizko zikloa edo baliokidea 0,05 puntuz balioetsiko da eta 0,1 puntu goi zikloa edo baliokidea.

- Prestakuntza ikastaroak: gehienez 0,4 puntu. Egiaztatzen direnak balioetsiko dira, 200 orduko kopururaino gehienez, beste titulazio batzuk ere barne, doktoretza ikastaroak, IGI, eta abar. Baita jardunaldi eta biltzarretara joatea ere, hauetan 5 ordu eguneko balioetsiko delarik. Iraupena zehazten ez bada, 10 ordu balioetsiko dira. 10 ordu bakoitzeko 0,02 puntu emango dira.

- Lanbide jarduera interesgarriak: lanaldi osoko 20 hilabete 0,4 puntuz balioetsiko dira.

Beste hainbat merezimendu deritzon ataleko azpiatalen puntuazioak batu, eta normalizatuko dira puntu 1 emanez baioespen handiena eduki duen eskatzaileari.

Azkenik, atal bakoitzean lortutako puntuazioak batu egingo dira: argitalpenak, biltzarrak, egonaldiak, proiektuetan parte hartzea eta beste hainbat merezimendu.